



Espainiako Zailtasun Eskaladako Kopan nabarmendu nahi dute euskal eskalatzaileek

- *Eneko Carreterok joan zen asteburuan Europako gazte Kopako 5. Postu bikaina lortu zuen blokean*

2018ko ekainak 8. Espainiako zailtasun eskaladako Kopa asteburu honetan abiatuko da Zaragozan. Soka txapelketen sasoia da jada! Euskal selekzioak guztira 15 ordezkari izango ditu, maila guztietan banatuta.

Absolutua	
Bittor Esparta Iñaki Arantzamendi Andoni Esparta Martin Urrutia Eneko Carretero Eder Berriz	Zuriñe Arrue Irati Zabala Izaro Azkue
Sub 20	
Martin Urrutia	Irati Zabala
Sub 18	
Eneko Carretero Andoni Esparta Mikel Cuerda	Aitziber Urrutia Izaro Azkue
Sub 16	
Aimar Uson Martzel Vicario Joanes Esparta	Haizea Osés Ilia Uriarte Lucia Arlanzon

Zaragozako Dock 39 rokodromoan larunbat eta igande egingo dira lehiaketak: gazte mailetakoak larunbata 9an, eta absolutuak igandea 10ean. Euskal eskalatzaileetako zenbait bi egunetan arituko dira. Kategoria guztietan dago nabarmentzeko gaia. Nabarmendu Eneko Carretero: joan zen asteburuan 5. sailkatu zen, blokean, Europako Gazte Kopako Herbeheretako proban. Denboraldiari neurria hartzen ari da zumaiarra, eta gora dator.

Espainiako Kopak hiru proba izango ditu. Zaragozakoaren segidan Bartzelona ekainak 30-uztailak 1 asteburuan, eta hirugarrena Madrilén azaroak 3-4 asteburuan.

